

## EURI EGUNA

Euskadi Irratiko ARGI IBILI saiora entzuleek bidalitako audio-mezuak

- Altsasun 4 gradu eta **euritan barra-barra**. Tentuz ibili errepidean! Agur!
- Egun on, Edurne! Azpeitian 4 gradu dauzkagu eta euria ari du ederki. **Negu-giroa** dugu. Elurra ez dakit **ate joka** ez ote dugun. Su ondoan egoteko giro e(d)arra! Bueno, ahal duenak ahal duena egin dezala, eta animo denoi! Ondo izan zaitezte eta pozik bizi! Aguuur!
- Egun on! Aian 6 gradu daude. Euria ari du, momentuan, eta beno, bastante kalma nahi du, eta *aber*, pixkat **premia ere bazegoen-ta**, *aber*, gaur **barrurantzean** ibili beharko dugu. Egun ona izan! Aio!
- Egun on! Errigoitiko Metxikan 6 gradu eta **euria goian-behean**. Ilun-ilun dago, eta iragarritakoa etorri dela. Ostegun ona izan dezazuela denok! Adio!
- Egun on danoi! Lazkaon 5 gradu eta euria **gogotik**. Gaurkoan, aspaldiko partez, **giro heze eta hotza**. Beno, egun ona izan! **Eutsi!**
- Egun on! Hemen Azkoitian 5 gradu. Euria **ederki** ari du! Gaur uste dut **barru-giro e(d)arra** egin behar duela! Beno ba! Ondo segi eta gero arte!
- Egun on! Oñatin 6 gradu. **Goiz euritsua** gurean. Une honetan **idolaz** dihardu. **Haizea bare-bare**. **Eguen** ona izan!
- Egun on denoi! Amezketan 5 gradu eta **euria goran-beheran** eta Abaltzisketara etorri gara eta hemen ere **antzeko-parezido**. Beno, hala ere, txanoa jantzi eta paseatzera atera beharko dugu, ba! Egun ona izan dezazuela denok!
- Egun on, kuadrilla! Ba, hemen, Oiartzunen, euri zaparrada bikaina ari du gainean. Gaur, gehienez holaxe aritu da eta orain ya kontinuo; euria behar zen eta gustura ari da, **barra-barra**. 8 gradu daude, eta beno, osteguna da-ta, animo! *Benga*, gero arte!
- Egun on! Gaur Oto-Goienen, Araban, freskatu du aurreko egunekin konparatuta; gaur 3 gradu eta, gau osoan zehar bezala, **euria zarra-zarra** ari du momentu honetan. Egun ona izan!
- Egun on! Iruran 6 gradu eta euria. **Zer egingo diogu bada!** Berriz negua etorri dela ematen du. *Hala*, ondo segi eta ondo pasa osteguna! Gero arte!
- Egun on! Hemen, Miotan, Elorrion, Berriozabaleta auzoan, 5 gradu. Gaur irten dotenean 5 eta erdixetan egon dira 9(gradu). **Eurixa barra-barra** eta hemen emoten dau euri tartean elur-eurixa moduan; holan, bestela plaf egiten dau eta ez dakit ba, elurra ez danik. *Enfin*, **egun petrala** daukagu gaur! *Hala*, egun ona pasa!
- Egun on! Beixe(?)hemen Sakana aldetio, ba hori da: Sakanan ez, baina Etzegaraten N1en errepidean elurra ari du **mara-mara**; gradu eta erdi dago eta momentuz errepidea garbi dago, baina ez dakit zenbat iraungo duen zuritzen. *Benga*, kontuz ibili errepidean!
- Egun on! Markina-Xemeinen 7 gradu deukaguz eta **eurixe dihardu**. Beste egun batzuetan baino **freskotxuago** hasiko dugu eta aspaldiko partez **bustitik**. Animo danoi, **eguen** da-ta!
- Egun on! Gaur Gasteiz aldean gradu erdi eta elurra. Ondo izan denok!